


## LATSARRIEN BERRINTERPRETAZIOA

Ikaslea: Julene Larrea Fernández  
Irakaslea: Ula Iruretagoiena Busturia



## AURKIBIDEA

ABIAPUNTUA		
	HITZAIURREA	3
	LABUR LABUR	4
MANIFESTOA		
	ONDAREA BERRIKUSTEA	6
	GAL ZORIAN DAGOEN ONDAREA	8
	BERRINTERPRETAZIO IRIZPIDEAK	16
BARRAINKUA 5		
	LA PERLAKO LATSARRIA	18
	HIRIGINTZA	20
	TESTUINGURUA	23
	PROIEKTUA	25
	ATAL TEKNIKOA	32
	PLANOAK	47
BIBLIOGRAFIA		57



Arropa eta maindire zikinak latsarrira eramaten dira. Batzuetan, asto batek kargatzen ditu zamak, beste gehienetan, pisua leporatzen dute emakumeek.

Gaur egun, ondare kotsideratzen dugun arkitektura, gizartearen talde oso murriztu batengatik aktibatu da. Tresna honen bidez, talde menderatzaileen ordenak iraunarazten dira eta haien parametroetan sartzen ez dena baztertu egiten da. Patrimonializazio prozesuetan, mendebaldeko perspektiba patriarkalak menderatu du. Beraz, ondarea ez da elementu neutrala eta ez ditu pertsona guztiak bere baitan hartzen haren natura disonantearen erruz. Hortaz, begirada feminista eharrezkoa eta bidezkoa egiten da, emakumeekin harremandutako ekintzak ezerezteko joera egon delako.



ZER?

Latsarien berrinterpretazioa:  
ondarearen berrikuspena.




NON?

Bilboko "La Perla" garbategian,  
Barrinkua kaleko 5 zenbakian.



NORENTZAT?

Genero arrazoiengatik jasaten  
duten indarkeriaren eruz,  
produkzio esferan garatu ezin  
diren edota autonomia galdu  
duten emakumeentzat eta haien  
familientzat.



NOLA?


Komunitate baten eratzea,  
etxebizitza tenporalak eta norbera  
garatzeko auto kudeaketarako  
espazioak.



MANIFESTOA

Lanbide hau inguratzen duen tresneria, lexikoa eta janzkera propioa oso aberatsa da. Hala ere, emakumeek gauzatutako ogibideei buruzko ikerketa faltak, ondare guzti hau desagertzeko zorian egotea ondorioztatu du.

Eraikitako ondarearen sailkapen kritikoa:



Emakume langilea :

Emakumeen ekoizpenen eta lanbideen ezereztatzean, egunerokotasunarekin lotutako ekintza guztiak arbuia egin dira. Izan ere, tratatu idazle, teologo eta moralista (gizonak normalean) askoren idatzietan, emakumea etxetik ateratzen ez zela aitortu da. Jakitun horien aburuz, onartutako irteera bakarra elizara joateko eskubidea zen, emakumeen lan aktibitateari buruzko ideia okerra hedatuz.

Hala ere, emakumeen oroimena mantentzen duten ikonoekiko jarrera molda daiteke. Garbitegiak giza-historiaren parte izan den kolektibo oso handi bat gogoratzeko geratzen den erreferentzia ia bakarra da. Horrezkero, begirada feminista beharrezkoa eta bidezkoa da espazio hauen berrinterpretaziorako..

Gehienetan, emakumeak ekoizpenaren eta zerbitzuen adarretan eginkizunaren garrantzia, ofizialki aitortu zaien eginkizunaren garrantzia, praktikan askoz handia delarik. Kolektibo honen irudia, zeregin domestikoekin egon da lotuta aspalditik baina bere etxe kanpoko presentzia aktiboa frogatzen duten dokumentuak argitaratu dira historian zehar:

*"Errepublikak dituen 61.424 alargun, 247.602 ezkongabe eta 25.000 umezurtzen artean, 140.000 jostun, lizatzaile, latsatzaile, ehule, zigarro-egile edo oratzaile dago. Hortaz, emakumezko biztanleria helduaren erdiak, bizibidea ateratzeko ahalmena izango ote duen zalantzarekin bizi da."*

Historikoki, garbiketarekin zerikusia daukaten lanekin lotu da emakumearen irudia; izan ere, Biblian latsatzaileak aipatzen dira jadanik. Nahiz eta mendebaldeko gizartean desagertutako lanbidea izan, hirugarren munduko zenbait herrialdetan eguneko gai zerrendan dago oraindik ere. Hirietako garbitegi publikoak, ondare hartu badira ere, emakumeekin lotutako edonoloko konnotaziorik ez dago. Gaur egunera ekipamendu publiko neutro gisa heldu zaizkigu, eta ez dute behin izan zirenaren inguruko informaziorik ematen normalean.

(\*) Langileei eskainiko ondarea gutxienezkoa da. Izan ere, eraikitako ondare gehienak sektore boteretsuak oroitzen ditu. Hala ere, zenbait eraikin (tenpluak, monumentuak, katedralak...) langileen borxazko lanak gogoraratzeko erabili dira ere.

## Emakume langilea artean aztergai

Zenbaitetan historian zehar, ekoizpen artistikoei esker euki dugu errealtate batzuen berri. Ikertzen den gaia ez da salbuespena; nahiz eta emakumeak arte ekoizletzat oso gutxitan hartu diren, izaki artistiko pasiboak izan dira askotan. Behintzat, haien ogibideen berri jakiteko balio izan du.

Zenbait garaitan garbitzaileen lanbidea erromantizatu den arren, XIX.mendetik aurrera, langileak laztasunez aurkezten zaizkigu. Arte plastikoetan, aurpegieta min keinuak eta esfortzu aztarnak agertzen dira.

Daramatzaten fardelak haiiek baino handiagoak dirudite batzuetan, eta gorputzen jarrerek deserotasunari buruz hitz egiten dute. Halere, ez da emakume ahula irudikatzen baizik eta bizirauntzeko ahaleginak egin behar dituen langile sendoa.

Garbitzaileak umeekin irudikatzea, nahiko ohikoa da kuadro hauetan, emakumeek lana eta bizitza familiarra uztartu behar zutelaren seinale.

Hemen hauetako artelan batzuen zerrenda:

*La lavandera*, Jean Siméon Chardin 1735

*Las lavanderas*, Goya 1780

*La lavandera*, Honoré Duamier 1863

*Lavanderas en el bajo de Belgrano*, Prudiliano Pueyrred 1865

*Retour du lavoir*, Teophile Steinlen 1884

*Laveuses à Arles*, Paul Gauguin 1888

*Lavanderas junto al canal San Martin*, Joaquin Sunyer, 1901

Urrezko mendean, literaturan agertuko dira latsarrietako emakumeak, haien arteko harremanen berri emango dute egileek;

*"Tomé jabón con tanto desvarío*

*para lavar de un bárbaro despojos,*

*que hasta los paños me llevaba el río,*

*mayor con la creciente de mis ojos.*

*Cantaban otras con alegre brío,*


*y yo, Leonor, lloraba mis enojos,*

*lavaba con los mismo que lloraba*


*y al aire de suspiros lo enjuagaba"*

*La moza del cántaro*, Lope de Vega

Espainiako arte garaikideko museoan artisten sailkapena



Espainiako emakumeen ordezkarietza egungo arte sisteman:



Iturria: Centro de Documentación de Mujeres en las Artes Visuales

Latsatzaile eta garbilarien teknika eta lanei buruz aintzinako zibilizazioek egindako ikerketak allegatu zaizkigu; koipegabatzeko prozedurak hain zuzen ere. Grekoek, arropak ur-zuloetan sartzen zituzten eta zapaltzen zituzten. Hebrear eta egipziarrek bikarbonatoa etabiltzen zuten dagoeneko, eta zenbait historialariren testuen arabera, erromatarrek giza gemua erabiliz koipegabatzeko zuten.


Mendebaldeko historian, emakumeek gauzatu izan dituzte garbiketa lanbide gehienak. Langile batzuk, familiaren arropak eta ehunak baino ez zituzten garbitzen, beste batzuk ordea, lan ordaindu bezala ekiten zioten.

Ikasketarik eskatzen ez zuen lanbidea izan arren, beste ogibidekin gertatzen den bezala, latsarrietako emakumeek haien teknika, janzkera eta lexiko propioak garatu zituzten.

Euskal herriko kasuan, Hasparreneko latsatzaileak erabiltzen zituzten teknikak heldu zaizkigu.

Latsarrietako emakumeak, hirietara hurbiltzen ziren arropa zikinak biltzera eta asto edo gurdi batekin lagunduz, latsarrietara eramaten zituzten garbitzeko. Bi edo hiru egun eta gero, behin arropa garbia eta sikua zegoela, hirietara eramaten zuten bueltan.

Garbitzeko gorputz jarrerek ondorioztatuta, hezurren gaixotasunak oso bizkor agertzen ziren



Arropak eramateko saskiak buruan eusten zituzten burukote izeneko zapi batean bermatuz. Zapiak, laztoz beteriko kuxin moduko bat inguratzen zuen eta buruan 30 kilo arropa eramaten laguntzen zuen.

Lixiben eta bestelako produktuak amasteak, birikekin lotutako eritasunak eragiten zuten. Zer esanik ez, arropa zikinekin kontaktuan egoteak gaixotasun larriekin kutsatzen zezakeen.



Dirudienek, latsatzaileak identifikatzea oso erraza zen, eskuetan zeramatzen ospiak eta erredurei esker. Halere, azaleko gaitzak ez ziren bakarrik

Kuba izeneko, oinarria zulatua zeukan egurrezko ontzi handi batean sartzen zituzten arropa zikin zuriak eta oyal izeneko ehun zati batekin estaltzen zuten ontzia. Oyalaren gainean errautsak jarriko zituzten eta lixiba irakiten hasten zen. Gainetik, ur oso beroa botatzen zuten eta ontziaren zuloetatik filtratzen zen.

Filtratutako ur hori, bertz izeneko ontzi batean biltzen zen, berriro ere, errautsen gainetik botatzeko.

Prozedura behin eta berriro errepikatzen zen lixiba egosita egon arte.

Behin egosita, ibaira eramaten zuten garbiketa egiteko





*"Lixiba, hilean behin egiten zen normalean. Familiak handiak ziren eta hogeit bat izara biltzen zuten bakoitzak. Egun osoko lana zen hura"*

*[...]*

*"arropa garbitzea gogorrena zen. Udan ez genuen hain txarto pasatzen, baina neguan ikaragarria zen; arropa ibaian sartuta garbitzen genuen. Hotza jasan behar genuen, gehienbat izotza zegoenean, arropa ez gogortzeko "*

*[...]*


*"Lehortzeko, udan belardietan destolestean genituen izarak. Kontuz ibili behar genuen behin baino gehiagotan, arropak eta izarak lapurtzen zituztelako"*

Emakumeek gauzatutako ogibideei buruzko ikerketa faltak, ondare guzti hau desagertzeko zorian egotea ondorioztatu du.

Zenbait antropologok lanbide hauetan oinarritutako azterketak egin izan dituzte, baina oso gutxitan helarazi egin da, gizonezkoen lanbide askorekin gertatzen ez den bezala. Oso ezagunak dira adibidez, meatzarien lanbidea ezagutarazteko ireki diren museoak edota interpretazio zentroak, eta testuinguru horietan emakumearen irudia agertzen den arren, bigarrenmailako pertsonaia tratera ematen zaio.


Arropari kolpeak emateko balio zuen egurrezko tresna hau, zikinleriaren arabera, teknika desberdinak erabiliko ziren.

Emakume bakoitzak, haren tresnak eramaten zituen ibai ertzera. Herraminta pisutsu huez gain, garbitu beharreko arropak leporatu behar zituzten.



Uretan dagoen arropari ur beoa gainerik botatzeko balio du tresna honek. Heldulekua egurrezkoa izaten zen, eta ontzia metalezkoa.



Lixiben heltzea baino lehen, garbiketak primitiboagoak ziren, Arropa busti eta gero, hauts kapa batez estaltzen zen, eta irakiten zegoen ura botatzen zitzaion. Prozesu honek, alkali eta potasioa askatzen zuen, arropa garbitzeko lagunduz.



Erabilera berdinekin batentzat tresna sofistikatuagoak aurki zitezkeen. Herraminta batzuk, belauak gainean jartzeko euskarria zeukaten

Egurrezko taula honen kontra igurtziz, emakumeek ibaietan garbitzen zituzten enkarguak.

Tresnarik ez bazegoen, ibai ertzeko harri batekin egiten zuten garbiketa. Lixibak eta oliotik eratorritako xaboiek, prozesua nahiko erraztu zuten.



Garbitegiaren ordutegia goizeko 6etatik (udan 5etatik), gaueko 9etara zen, xaboi salmenta debekatuta zegoen eta sarrera emakumeek mugatuta zeukan


Gizonezkoak material pisutsuak eramateko baino ez ziren sartzen eta berehalakoan irten behar ziren. Garbitegiko arduradunak arau hauek betetzen zirela gainbegiratu behar zuen.


Hasiera batean, umeek debekatuta zeukaten sarrera, baina laster bideratu ziren gela batzuk bertan egon zitezten, haien amen bistara

lbailetako latsametan gertatzen zen bezala, espazio itxi berri hauetan, langileen arteko harremanak sortu ziren. Izan ere, berriak eta informazioak zabaltzeko toki estrategikoetan bilakatu ziren.

Zenbaitetan emakume taldeek oso biziki egiten zituzten aldarrikapenak eta agintarien bila kaleratzen ziren haien kezak edo eskaerak entzun zitzaizkien.

Harraska indibidualak zeuden xaboi eta produktu desberdinekin garbitzeko, eta harraska handi kolektiboak arropak uretan eragiteko. Lixiba bertan lehortu ahal zen, baina lapurretak gerta zitezkeen





XVI.mende bukaerako izurritearen aurka, Bilbon hartu zen neurrietako bat, gaixoen arropen garbiketara bikoitza izan zen. Lehenengoan, arropa urarekin irakiten zen, bigarren garbiketara ur hotzarekin egiten zen.

XIX.mendean, kolera izurriak momentu hartara arte inoiz hartu ez ziren higiene neurriak hartzera behartu zuen gizartea.

Neurri berri horien artean, ibai ertzeetan arropa garbitzearen debekua zegoen; gaixotasunak urarekin transmititzen zirelaren susmoa baitzegoen. Gutxinaka agintariak osasungaritasun arazoetaz ohartu ziren eta lehenengo garbitegi publikoak eraikitzen hasi ziren. Hala ere, higiene arazo bati erantzuna emateko soluzio bat izateaz gain, logistika konplexu bat zen ere; hirien hazkunderen ondorioz, bat, etxebizitzak gero eta ibaietatik urunago egotea izan zelako.

Zenbait argitalpen jarraioi ekologikoak ematen dira garbitegi publikoen eraikuntzarako; errekek eta ibaiak babesteko eraiki behar zirela adierazten du.

*“Que ninguna persona tenga atrevimiento de lavar ropa, madejas, vientre de reyes ni otra cosa inmundada desde donde llamamos el gazero o bebedero de Goyara hasta el embudo de las aguas que bajan por la calle a introducirse en el cerrado del Patron de las Obras Pias de Margarita, porque de permitirlo se sigue que cada vecino quiere tener en la puerta de su casa lavadero de ropa [...]”*

Bilbon, 1855ean proiektatu zen lehen garbitegi publikoa Los Carros-en; hala ere inoiz ez zen eraiki. Geroa, 1868an San Anton zubaren alboan eraiki zen lehenengoa, denbora gutxira eraiki bazen ere. Bat-bateko kolera izurriteak, naatik prentzako garbitegiak sortzera behartu zuen hiria.


Ricardo de Bastida arkitekto Bilboti irak, eraikinetan berri teknologikoki hartzeko aukerakusi zuen, garbitegiak modernizatuz.

Aurrerapenei esker eta garbitegien eraikuntzari esker, emakumeak ez ziren ibaietara garbitzera joan behar eta ez ziren bustitzen.

Hala eta guztiz ere, lan baldintzak gogorak ziren oraindik eta garbitegia erabiltzeagatik zerga bat ordaintzera behartuta zeuden.

Bilboko latsarri ia guztiak eraitsi dira, ez dago historia horien arrastorik eta emakume haien historiak galdu egin dira. Gerta ez dadin, ondarearekiko daukagun jarrera genero perspektibarekin batera uztartu beharko da.

Bilbon elkarbizi ziren latsarriak, 1855 eta 1910 artean





- Castaños-eko latsarria
- La Perla-ko latsarria
- San Mames-eko latsarria

#### ZERGATIK HAUEK?

Latsari hauek zergatik heldu zaizkigun galdetu beharko genuke.

Zergatik hartu dira ondare? Zergatik daude babestuta?

Emakume langile talde bat oroitzen dute?

Izen handiko arkitekto batek egindako obra delako heldu zaizkigu?


La Perlako latsarria eta Castaños-eko latsarriak, eraikin publiko neutro gisa heldu zaizkigu. San Mameseko latsarrin, etxebizitza libreak eraiki dira.

Behin izan zuten izaeraren berri ez da ematen inon.




Emakumeek historian zehar gauzatutako lanekin zenikusia duten oso arkitektura gutxi heldu zaizkigu. Gainera, haien ekoizpen artistiko eta filosofikoa asko mugatu denez eta hedatze murriztua izan duenez, haien irudia ezabatuz joan da.


Hirietan geratzen diren latsarri publikoak zaintzea, emakumeen oroimena ohoratzeko aukera da. Proiektua aurrera eramateko, berrinterpretazio irizpide batzuk ezarri dira, memoria kolektibotik emakume horien irudia ezaba ez dadin.







Dirudienez, latsatzaileak identifikatzea oso erraza zen, eskuetan zeramatzaten ospelari eta erredurei esker. Halere, azaleko gaitzak ez ziren bakarrak; garbitzeko gorputz jarrerek ondorioztatuta, hezurren gaixotasunak oso bizkor agertzen ziren.




## JATORRIZKO PLANOAK

E 1:200

1891an hasi ziren obrak, udal arkitektoak gidaturik. Momentu hartan, Edesio Garamendi zen udal arkitektoa, baina laster utzi zuen kargua eta Enrique Epalzak hartu zuen. Azkenengo honek burutuko du La Perlako latsaria

1834: lehenengo kolera brotea Bilbon




Gerra ostea: behin epidemia pasa den, latsarria mantentzeko interesik ez dago. Jantokiak jartzen dituzte. Distribuzioa mantentzen da, baina latsarriak kentzen dira. Elementurik identitarioenta desagertzen da. Bi latsarriek eratzen zizuten patioak mantentzen dira.

2020: Birgaitze lan handia egiten da, udal bulegoak berritzeko. Mantentzen den bakarra, fatxada da.

epidemia garaia, latsarri ugari eraikitzen dituzte Bilbon

1855: bigarren brotea  
1855: lehenengo latsari publikoa proiektatzen da

1891: La Perlake proiektua hasten da




1985: birgaitze lan handia egiten da eraikinean, gazteentzako gela batzuk egokitzeko. Denbora gutxira, Bilboko udaleko bulogetan bihurtuko da. Bi patio horiek desagertzen dira






KALIFIKAZIO ETA SAILKAPEN  
PLANOA (HAPO BILBO)



Bilboko zabalgunearen lurren kalifikazioa batzen du plano honek. Honen arabera, esku hartzea lur urbanizagarri batean egingo da, beraz, horrelako rekalifikazio eskaerarik ez da egin behar.


ERABILERA GLOBALAK  
(HAPO BILBO)



Plano honetan, zabalgunero erabilera globalak agertzen dira, proiektuaren eremua, egoitza erabilerara bideratzen da.



ERABILERA XEHETUAREN  
PLANOA (HAPO BILBO)



Erabilera xehetuen planoaren arabera, proiektuaren eremua hornidura publikoa da. Beraz, HAPOaren atal honetan, aldaketak egin beharko dira.

ERAIKIN BABESTUAK  
(HAPO BILBO)



Plano honek, aurreizatearen babes mailaren berri ematen du. C kategoria barruan sartzen da eraikina. Beraz, eraikuntzaren babes erregimena jarraitu beharko da.

## BABES IRIZPIDEAK

Bilboko araudiak, honako hau dio C mailako eraikinetan egiten diren esku hartzeen inguruan:

*Oinarizko kontserbazioko eraikinak, garrantzi bereziko balio arkitektonikorik izan gabe, ingurunean edo tipologiaren aldetik elementu esanguratsuak izatearren, eraikitako ondarearen zati interesgarria osatzen dutenak dira.*

*Oinarizko kontserbazioko C Mailan sartzen diren eraikinen balioa egitura tipologikoan datza gehien bat, fatxadan azaltzen delarik, kanpotik; honek, batez ere, ingurune mailako balioa ematen die; inguruarekiko koherentzia estilistikoa, hizkuntza baten betikotasuna, adierazgarritasun aberatsa, eta garrantzizko elementu arkitektonikoak izatea, bai fatxadan eta baita barrualdean.*

*Eraikin hauentzat babesdun izaera izango dute, gutxienez, elementu hauek:*

*Kanpoaldeko fatxadek eta gaur egungo neurriek.*

*Jatorrizko zirkulaziorako espazioek, zutikakoek eta zeharrekoek.*

*Kanpoaldeko eta barrualdeko dekorazio-aparatuak (erlaiz, pilareen erremateak, eskulturak, portalak, lurrak, atersonatu, eskaiolak, etab.)*

*Eraikinaren osotasun estilistiko eta apaingarrian sartzen diren altzariek*

Esku hartzea, XIX. mendeko latsari batean egingo da. Gaur egun, jatorrizko eraikinetik heldu zaigun bakarra, fatxada da. Beraz, hau izango da errespetatuko den baldintza.

## ALDAKETAK HAPOan

Erabilera xehetuetan, partzela homidura publikoa dela aitortzen da. Beraz, HAPOan erabilera hori aldatu beharko da partzela honetan;

BARRAINKUA kalea\_003 partzela\_03 etxe iria\_605 poligonoan

homidura publikotik, EGOITZA PRIVATU erabilerara.



Bilboko Abando auzoko bizilagunei egindako azken galdeketa (2017) emaitzek, bertakoen kezka azalazten dituzte. Txostenean, emakumeen jarrera kritikoagoa da orokorrean, baina segurtasunari buruzko galderetan, erantzunak oraindik gogorragoak dira.

Txostenetik ondorioztatu daiteke, ardura nagusia, eskaletasunaren eta delinkuentziaren igoera dela. Gainera, azken urteetako tabernen ugartzeak, alkoholarekin lotutako istiluak handitu ditu.

Igertu diren beste problematikek, zentralitate faktorearekin daukate harreman estua; trafikoa eta zarata.

Abandoko bizilagunen bizitza-kalitatearen balorazioa (Otik-10era): 7,31

Bilboko bizilagunen bizi kalitatearen balorazioa: 6,88

Otxarkoagako bizilagunak dira balorazio baxuena egiten dutenak: 5,57

8 minutuko erradio batean, hezkuntza zentro publiko bakarra dago, lehen hezkuntzako eskola

Esku-hartzearen eremua: Barrainkua kaleko mehelin arteko eraikina

10 supermerkatu/ elikagai denda

Abandoko errentak, Bilboko errenta altuenak dira, 37 017€ urtean

Abandon, metro karratua bilboko garestiena da, lokal edo etxebizitza bat alokatzea batz besteko prezio hauek ditu;

Etxebizitzaren prezioa (alokairua): 14,6€/m<sup>2</sup>

Etxebizitzaren prezioa (erostea): 4 400€/m<sup>2</sup>

Lokal komertzialaren prezioa (alokairua): 25,76€

Beraz, auzo honetara sarrera ez da demokratikoa eta gutxi batzuek baino ezin dute hemen bizi. Izan ere, ez dago etxebizitza publikorik.

Garraio publikoaren eskaera oso ugaria da eremu honetan, 8 autobus geltoki, 2 tranbia geltoki eta metro geltoki bat aurki ditzakegu

Uribitarteko pasalekua

Kiror ekipamendu publikorik ez

Umeen aisialdirako espazioa mugatua da, ez dago gertutasuneko parkeirik. Parke hurbilena, Guggenheim museoko parkea da, hala ere, jendez beteta egoten da normalean, eta ezin da auzo maila eskalaz hartu

Egoera aurrera joan bada ere, gaur egun emakumeak ez dira guztiz askatu. Gizartea, gizonezko zuriaren hegemonian oinarritzen da, eta antolaketa horrek, botere harreman desorekatuak sorrarazten ditu. Indarkeriaren kontzeptuak adiera zabala du, eta ez da mugatzen bikotekideen edo bikotekide ohien arteko tratatu txarretara eta sexu-erasoetara.

Emakumearen aurkako indarkeria-modu asko daude (indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa, etab.), eta eremu askotan erabiltzen da (familiar, komunitatean, Estatuaren aldetik, gatazka armatuetan, etab.) Beraz, neskatilen eta emakumeen aurkako indarkeriak adierazpen ugari ditu, nahiz eta indarkeria modu batzuk ohikoagoak diren gune, herrialde eta eskualde jakin batzuetan.

Emakumeen aurkako indarkeria modu guztiek dute elkarren arteko lotura; emakumeenganako gutxiespena. Mespretxu honek itzulpen zuzena dauka egunerokotasunean eta bizitzaren esparru guztiak zeharkatzen ditu.

Botere-harreman desorekatuak daude emakumeen aurkako indarkeriarenazean, eta botere horien azken xedea ez da emakumeak zauritzea, baizik eta menderakuntza eta harremaneko botereari eta autoritateari eustea. Datuak argi hitz egiten dute desoreka honi buruz, 2003tik 2019ra, 1013 emakume hil dituzte. Hala ere, hau ez da larrizko datu bakarra. Gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakalak berdintasun eza iraunarazten du, emakumea egoera txaragoan ipiniz.

Gaur egun, soldatapeko lan produktiboa da sozialki aitortzen dena; ugalketa lana berriz, ez da aitortzen ez ekonomikoki ez sozialki. Planteamendu hau, kargen bakaneta desorekatua iraunarazteko tresna indartsua da. Egoera, larritzen da bestalde, sexuaren araberrako soldata arrakala ezagutzearan.

Soldata arrakalak, lan-merkatuko diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu, eta diskriminazio eta desberdintasun horiek,

praktikan, emakumei eragiten diete nagusiki. Soldata-arrakalak zuzeneko eragina du Gizarte Segurantzako kotizazioetan eta ondoko pentsioetan, eta oso lotuta dago emakumeek autonomia ekonomiko txikiagoa izatearekin eta pobrezia-indize handiagoak izatearekin, eta horrek guztiorrek zuzenean eragiten die haien kargura dauden seme-alabei, bereziki, emakumeak familia-buru diren kasuetan.

Soldata-arrakalaren zergatiak askotari-koak eta konplexuak dira. Alde batetik, emakumeek egindako lanari balio sozial eta ekonomiko txikiagoa ematen zaio; kualifikazio apaleko lanbide-kategorietan gehiago gertatzen da hori.

Zerbitzuen sektorearen barruan adibidez, soldatarik apalenak dituzten okupazioak (zerbitzuetako langile ez-kualifikatuak, jatetxe eta merkataritza zerbitzuetakoak, osasun eta zaintza zerbitzuetako langileak...) emakumeak egiten dituzte.

Gainera, ematen da, gizonek eta emakumeek ez dutela lansari berdina jasotzen balio bereko lanaren truke, erabiltzen diren balioespen-irizpideak eta hortik datozen soldata-osagarriak direla eta. Dependentsia ekonomikoak askatasuna asko mugatzen du. Izan ere, ekonomikoa aitortzen den indarkeria mota bat da. Horregatik, lanpostuak parekatzea neurri funtsezkoa da genero-lerritzeak ekiditeko, tradizioz emakumeek bete izan dituzten lanpostu edo lanbide batzuk ordaintzeko orduan. Lan-desberdintasuna sorrarazi zuten faktoreak eta datuak aztertu ondoren, ikusten da hartu beharreko neurriek antolamendu soziala eraldatzea eragin behar dutela, zaintza-lanak hobeto aitortuz eta lan horietan erantzukidetasuna bultzatuz.

Azken hamarkada hauetan lan-merkatuko hainbat parametrotan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak nahiko estutu badira ere, ezin esan dezakegu egoera ekitatiboa dela. Izan ere, oraindik ere agerikoak dira

soldata desberdintasunak, eta, denboran izaten ari diren bilakaera aintzat hartuta, ez dirudi berehalakoan murriztuko direnik.

IBEX 35 ▼ -0.67% / EUROSTOXX 50 ▼ -0.20% / S&P500 ▲ 0.92% / EUR X USD ▲ 0.356% / PETROLEO BRENT ▲ 1.991%

**CincoDías** EL PAÍS ECONOMÍA

Compañías Mercados Economía Mi Dinero Fortuna Cotizaciones f t in

ACTUALIDAD La justicia condena a Lidl a retirar del mercado sus robot de cocina por copiar la Thermomix >

TERRITORIO PYME > Emprendedores

EMPRESARIOS / PYMES / EMPRENDEDORES / FRANQUICIAS / CURSOS Y EVENTOS / GUÍAS / FINANCIACIÓN

EMPRENDEDORES >

### Emprendimiento: la mujer fracasa menos, pero el hombre recibe más financiación

SOCIO GONZÁLEZ

El 58% de los negocios regentados por hombres fracasaron en el último año, frente al 30% de los iniciados por mujeres. Sin embargo, los primeros tienen un 10% más de posibilidades de recibir financiación.

**eitb.eus** Albisteak Kirolak Telebista Irratia Besteak ▼ ZUZENEAN |

KORONABIRUSA | POLITIKA | **EKONOMIA** | GIZARTEA | MUNDUA | KULTURA | BITXIKERIAK | TEKNOLOGIA | ZUZE

Orria entzun Inprimatu

2021/02/22 11:41

EKONOMIA - SOLDATA ARRAKALA

## Gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala urtean 7.200 eurokoa da, EAEn

O. A. | EITB MEDIA

Zerbitzuen alorrean nabari dira alderik handienak, emakume askok lan egiten duten sektorean hain zuzen ere.

**el Periódico**

SOCIÓLOGA EN ACCIÓN CONTRA EL HAMBRE

ENTREVISTA | **LORENA HERNÁNDEZ** Socióloga en Acción Contra el Hambre

## Lorena Hernández: "La brecha de género laboral ha crecido con la crisis del covid-19"

15.452 empleos en seis años es el balance de los programas sociolaborales de Acción contra el Hambre que gestiona Lorena. Una encuesta entre los participantes desvela que el covid-19 ha limitado más las oportunidades laborales de las mujeres. La brecha laboral de género y la digital aumentan con la pandemia, especialmente entre las mujeres con hijos a su cargo






Genero indarkeria, gizarteak daraman losa pisutsua da. Emakume askok ezin dira profesionalki hazi nahi bezain beste, beste batzuk. Independentzia ekonomikoa inoiz ez dute lortuko.

Aurreko atelatan, latsarri bat nola berrinterpretatu beharko litzatekeen planteatu da. Proiektu honetan, irizpide horietan oinarrituta, La Perla latsarrian egingo da esku-hartzea.


Autonomia sendotzea eta independentzia ekonomikoa lortzea behar duten emakumeen perfilen beharrak aztertuz diseinatu da eraikina.

Nahiz eta perfil oso desberdinak izan, hegan egiteko gogoia amankomuna da guztien artean, eta hori bada nahikoa elkarrekin aurrera egiteko






Elkarren arteko sare afektiboa jostea.  
Autonomia berreskuratzeko inguru babestu eta atsegina eratu



Genero kuestioengatik ematen ez diren aukerak osotzea. Emakume ekoizlea ager dadin erreztasunak ematea.




Aitortzen ez diren ugalketa lanak arintzea. Zama kentzea. .  
Produkzio esfera eta ugalketa esfera uztartzen lagungu

## GELA INESPEZIFIKOA

Kudeaketa librea bermatzeko, gela inespezifikoz osatutako eraikina proposatu da. Gela hauek mugaketa sistema propioa daukate eta ekipamendu minimo bat, erabiltzaileak programa erabaki dadin.

Gela hauek, ekipamendu bereziak behar ez dituzten negozioak etxean sartzeko aukera ematen dute.



## BARNE BANAKETA SISTEMA

Kudeaketa ahalik eta librean eta malguen izan dadin, gelen arteko banaketak ate mota desberdinekin proposatzen dira. Bilatzen den intimitate mailaren arabera erabiltzeko,

### 1 EGURREZKO ATE MUGIKORRAK









Tabike izaera, banaketa opakoa  
2 espazio guztiz banatzeko

### 2 ATE ERAISGARRI GARDENAK

Kanpo-baru harremanak ez ditu eragozten  
Tarteko espazioak sortzea baimentzen du

### 3 KORTINA

Banatzailer malgua  
Behin behineko banaketetarako






### PATIOA

Erabili diren gainerako baliabideak elkarrekin harremantzeko. Kota desberdinetan dauden gelak harremanetan jartzen ditu eta zaintza lana errazten du.

Gainerako gelak biltzeaz aparte, patioan bizitza gertatzeko espazioak planteatzen dira



Hemen, eraikina osazen duten espazioak:

Eraikina, autotestiorako dago diseinatuta, beraz, honako hau, aukera bat baino ez da. Gela inespezifikoetan, programa ugari sar daitezkelako.

## 1 SOLAIRUA

### ESPAZIO ALDAKORRAK 310.15m2

GIMNASIOA 51.21m2  
IKASGELA 11.40m2  
JOSTUN TAILERRA 31.34m2  
LORATEGI IREKIA 102.90m2  
HITZALDIETARAKO GUNEA 22.86m2  
BUZTINGINTZA TAILERRA 79.82m2

### ESPAZIO FINKOAK 20.71m2

AEROTERMIA INST 9.19m2  
KOMUNA 7.63m2

## 0. SOLAIRUA

### ESPAZIO ALDAKORRAK 224.65m2

ATARI 21.45m2  
GONBIDATUEN ESP 23.09m2  
GONBIDATUEN OFF 9.85m2  
HITZALDI 22.86m2  
JOLAS GUNE 28.73m2  
EGONGELA 93.69m2

### ESPAZIO FINKOAK 9.73m2

OFFICE 0.62m2  
KOMUN IRISGARRIA 7.42m2

## 1. SOLAIRUA

